Gainera, finantza kontrola egitean, nolana ere, ordenamendu juridikoan organo kontu-hartzaileari esleitutako kontrol jarduketak sartuko dira.

2.2 Finantza kontrolaren plangintza

Finantza kontrolerako urteko planak ekitaldian egin beharreko kontrol iraunkorreko eta auditoretza publikoko jarduketak jasoko ditu, arlo bakoitzeko arriskuen analisisan oinarrituta (IV. ERANSKINA. 3. puntua)

Plan hori osoko bilkurari jakinaraziko zaio, irismen material, subjektibo eta tenporalari buruzko berriazko xehetasun batekin.

Finantza kontrolerako urteko plana behar bezala aztertutako beste zio batzuegatik aldatu ahalko da eta osoko bilkurari bidaliko zaio informatzeko.

2.3 Kontrol finantzarioko txostenak

Kontrol iraunkorreko jarduketan eta auditoretza bakoitzaren emaitza idatzizko txostenetan dokumentatuko da. Haietan, modu argi, objektibo eta neurtuan azalduko dira egiaztatutako gertakariak, lortutako ondorioak eta, hala badagokio, kontrolerako jarduketei buruzko gomendioak.

Txosten horien egitura, edukia eta izapidea bat etorriko dira kontrol finantzarioko eta auditoretzako arau teknikoekin (Finantza kontrol iraunkorreko txosten ereduak – IV ERANSKINA 5.7 puntua).

Kontrol finantzarioaren behin betiko txostenak organo kontu-hartzaileak bidaliko dizkie kontrolerako jardueren ekonomiko-finantzarioa zuzenean kudeatzen duenari eta toki entitateko lehendakariari. Halaber, urteko kontuen auditoretza txostenak egoitza elektronikoko korporatiboetan argitaratu beharko dira, dagokien entitatearen kontabilitate informazioarekin batera.

3. TXOSTEN LABURTAILEA ETA EKINTZA PLANA

3.1 Txosten laburtzailea

Organo kontu-hartzaileak, urtero eta kontu orokorra onartzen denean, barne-kontrolaren emaitzen laburpen-txostena egingo du eta osoko bilkurari bidaliko zaio, korporazioko presidentearen bitartez, *kontu orokorra onartzen denean* eta aurreko ekitaldian egindako finantza kontrolerako eta eginkizun kontu-hartzaileko jarduketek eragindako emaitzarik esanguratsuenak jasoko ditu.

Txostenaren edukian euren garrantzi kuantitatibo edo kualitatiboagatik, errepikatzeagatik, berriak izateagatik, zein organo kontu-hartzailearen iritziz egoki den beste edozein inguruabarrengatik esanguratsu diren alderdiak sartuko dira eta ekitaldian kontrolatutako jardueraren zuzeneko kudeatzaileei bidalitako txostenetan egon beharko du. (Txosten laburtzailearen ereduak – V. ERANSKINA)

3.2 Ekintza plana

Tokiko erakundeko presidentek, laburpen txostena osoko bilkurari bidali eta 3 hileko epean gehienez, ekintza plan bat formalizatuko du. Laburpen txostenaren agertutako ahuleziak,



Zumaiako Udala

2020IAKU0008-A20/5190

gabeziak, akatsak eta ez-betetzeak zuzentzeko hartu beharreko neurriak zehaztuko ditu plan horrek (Ekintza planaren ereduia – V. ERANSKINA)

Ekintza plana toki erakundeko organo esku-hartzaileari igorriko zaio, eta berak baloratuko du egokia den adierazitako gabeziak zuzentzeko eta, hala badagokio, lortutako emaitzak.

Presidenteak osoko bilkurari emango dio barne-kontrola egitean agertutako ahulezien zuzentzetaren egoeraren berri eta, horrela, osoko bilkurak kudeaketa ekonomiko eta finantzariora hobetzeko ezarritako neurri zuzentzaileen aldizkako jarraipena egin ahalko du.

Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto

ERABAKIA: 1.- Barne kontroleko Fitxa eta Txosten ereduak onartzen dira.

2.3.2.- EUSKO JAURLARITZAK ESKATUTAKO ZUMAIAKO ZUMAIA BHIKO 10 UNITATE HAUNDITZEKO ERAIKIN BERRIKO OBRA LIZENTZIAREN ICIO ATALEKO %95EKO HOBARIA EMATEA, BIDEZKO BADA.

2020KO UZTAILAREN 21EKO OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO ZUMAIA BHIKO 10 UNITATE HANDITZEKO ERAIKIN BERRIKO BAIMENEAN ICIO ATALEKO %95EKO HOBARIA APLIKATZEKO

AURREKARIAK

1.- Ikusirik 2019ko Ordenantza Fiskaletan, Uztailaren 5eko Eraikuntza, Instalazio, eta Obren gaineko Zergaren 15/1989 Foru Arauak, bere 5.artikuluan aipatzen duen bezala: *ordenantza fiskalek zerga kuotaren %95era arteko hobaria arautu ahal izango dute interes berezikoak edo udal erabilerakoak deklaraturako eraikuntzen, instalazioen edo obren alde, horretarako arrazoi sozialak, kulturalak, historiko-artistikoak edo enplegua bultzatzeko arrazoiak daudenean. Zerga honetan %95era arteko hobaria arautu ahal izango du osoko bilkurak onartzen dituen obretarako.*

Horren ondorioz, 2019ko urriaren 10eko Osoko Bilkurak onartu zuen Uztailaren 5eko Eraikuntza, Instalazio, eta Obren gaineko Zergaren 15/1989 Foru Arauak, bere 5.artikuluan arautzen dituen onuren izendapena. (Eranskina).

Hori dela eta, 2019an zehar eskatu diren obra baimenetan eranskinean azaltzen diren ezaugarriekin bat datozenak, eta Udaleko Hirigintza, Ingurumena, Obra eta Zerbitzuak Saileko arduradunaren aldeko txostenarekin.

2.- Ikusirik 2019ko irailaren 19an , ZUMAIAKO ZUMAIA BHIKO 10 UNITATE HANDITZEKO ERAIKIN BERRIKO obra baimena eskatu dela.

3.- Ikusirik 2020ko uztailaren 21eko ogasun batzordean batzordean gaia azaldu dela.

IRIZPENA

Ondorioz, 2020ko uztailaren 21eko Ogasun Batzordeak, honako botoekin:



Zumaia Udala

2020IAKU0008-A20/5190

Alde:

Aurka:

Abstentzioa:

ALDEKO/EZ ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea/ez jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

LEHENA.- ZUMAIKO ZUMAIA BHIKO 10 UNITATE HANDITZEKO ERAIKIN BERRIKO OBRA LANAK INTERES PUBLIKOTZAT JOTZEA ETA ONDORIOZ ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAN %95EKO HOBARIA EMATEA.

Zumaia, 2020ko Uztailaren 21a.

OGASUNEKO BATZORDEBURUA

KONTU-HARTZAILEA

Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto

ERABAKIA: 1.- Unitate handitzeko eraikin berriko obra lanak interes publikotzat jotzea eta ondorioz eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria ematea onartzen da.-

2.3.3.- UDALAREN 17. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

UDALAREN 17.KREDITU ALDAKETA ONARTZEKO OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA

Transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2020-KALD-000018-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.



Gaia aztertu ondoren,

IRIZPENA

Lehenengoa.- 2020ko uztailaren 21ean ospatzen den ogasun batzorde honek onartzen du/ez du onartzen Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzia modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 1100.226.338.00.99 2020	OLARRO EGUNA	40.000,00	40.000,00	0,00
1 0800.131.326.20.00 2020	ALDI BATERAKO LABORALA UDALEKU IREKIAK	73.968,38	50.214,84	23.753,54
	GUZTIRA	113.968,38	90.214,84	23.753,54

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0600.226.173.00.97 2020	HONDARTZAK COVID19	0,00	20.000,00	20.000,00
1 0100.227.920.00.96 2020	GARBIKETA COVID19	0,00	33.533,72	33.533,72
1 1000.227.920.00.91 2020	KOMUNIKAZIOA COVID19	0,00	26.681,12	26.681,12
1 0500.226.231.00.97 2020	COVID-19 EROSKETA ZERBITZUA	20.000,00	10.000,00	30.000,00
	GUZTIRA	20.000,00	90.214,84	110.214,84

Bigarrena.- Gaia aztertu ondoren, bozketa egiten da:

- Aldeko botoak:
- Aurkako botoak:
- Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea onartzen/ez da onartzen da.



Aldeko botoak: 10 boto (9 EH BILDU, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 6 boto (EAJ-PNV)

ERABAKIA: 1.- Udalaren 17. Kreditu aldaketa onartzen da.-

3.- HIRIGINTZA.-

3.1.- IRIZPENAK:

3.1.1.- 32 HGA-JOXE MARI KORTA INDUSTRIALDEAREN KONTSERBAZIO JUNTAREN ESTATUTUEN 3. ARTIKULUAREN GARAPENAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

2020KO UZTARILAREN 6KO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN BATZORDEAREN IRIZPENA, 32 HGA-JOXE MARI KORTA INDUSTRIALDEAREN KONTSERBAZIO JUNTAREN ESTATUTUEN 3. ARTIKULUAREN GARAPENAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENARI DAGOKIONA

AURREKARIAK

2002ko otsailaren 21ean 039/2002 zenbakidun Alkatetza Dekretuz eta Zumaia Lantzen SA-k bultzatuta, Zumaia Arau Subsidiarioen (HGA 32) "Joxe Mari Korta Industrigunearen" kontserbaziorako Hirigintza Erakunde Laguntzailearen Estatutuen Proiektua behin behinean onartu zen. "Joxe Mari Korta Industrigunearen" kontserbaziorako Hirigintza Erakunde Laguntzailearen Estatutuen Proiektua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 91 zk., 2002ko maiatzaren 17an) publikoki agertu zen hamabost egunetan. Era berean, eragiten zien jabe guztiei jakinarazi zitzairen alegazioak aurkeztu zitzairen. Jendaurreko agerraldi epea amaituta ez zen alegaziorik jaso. Hirigintza Batzordearen aldeko txostena eta irizpena kontuan izanda, 2002ko azaroaren 22an 270/2002 zenbakidun Alkate Dekretuz behin betikoz onartu ziren Zumaia Arau Subsidiarioen (HGA 32) "Joxe Mari Korta Industrigunearen" Kontserbaziorako Hirigintza Erakunde Laguntzailearen Estatutuak. Behin betiko onarpen akordioa aktuazio sisteman barneraturik zeuden jabe guztiei jakinarazi zitzairen, legez ezarritakoaren arabera moduan.

Ondoren, 386/2010 Alkate dekretu bidez, "Joxe Mari Korta Industrigunearen" Kontserbaziorako Hirigintza Erakunde Laguntzailearen Estatutuetako 3. artikulua garatu eta mantenu betebeharrak definitu ziren. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu zen eta agerraldi publikoan izan zen. Era berean, interesdunei erabaki proposamena jakinarazi zitzairen. Legez ezarritako epeak bukatuta, eta alegaziorik izan ez zirenez,



576/2010 Alkatetza Dekretu bidez behin betikoz onartu zen estatutuen 3. artikulua eta testu bateratua publikatu zen.

2.- AZTERKETA eta ESTATUTU PROPOSAMEN BERRIA

2020ko urtarrilean hasita, udalak Artadi auzoari zerbitzu emango dioten azpiegiturak eraikitzeko obra lanak burutzen ari da eta uztailen amaituko dira. Era honetara, Artadi auzoak azpiegitura hauek izango ditu: gasa, ur hornidura berria eta ur zikinen sare orokorra. Ur hornidura eta ur zikinen sare orokorrak udal titulartasunekoak dira. Sare hauen diseinua dela eta, Korta Industrialdeko azpiegituretan eragina dute:

- Ur zikinen sare orokorra Artadi auzoan hasten da eta hauek jasotzen ditu, eraikitzen den sarea Korta Industriguneko sarean sartzen da eta araztegia amaitzen da.
- Ur hornidura sare orokor berriak Artadiko ur biltegi berritik, Artadiko sute ahoi eta bideko beste erabilzaila batzuei zerbitzu ematen die. Ondoren, Korta poligonoko ur sarera konektatzen da, industrigune honek bi ur biltegi ezberdinetatik zerbitzua ziurtatuta izan dezan, sare mailatua osatuz.

Azaldutakoa ikusita, Korta Industriguneko bi sare hauek, ur hornidurarena eta ur zikinenena, eraikitako azpiegitura berriak medio, sare orokor bilakatu dira eta hauen mantenua Kontserbazio Erakundearen eskumenetatik kanpo dago. Izan ere, erakunde honen betebeharra industrigune honi zerbitzu ematen dien urbanizazioko elementu eta azpiegiturak mantentzea da, poligonari bakarrik ez baitaio zerbitzua ematen, baizik, industriadetik kanpo gelditzen diren beste auzo batzuei ere bai. Ondorioz, udalak, azpiegitura orokor hauen titular gisa, hauen mantenua bere gain hartuko du. Irizpide hau oinarri hartuta, "Joxe Mari Korta Industrigunearen" Kontserbaziorako Hirigintza Erakunde Laguntzailearen Estatutu proposamen berria txertatzen da, 3. artikulutik aipatu azpiegiturei dagozkien zereginak kenduta:

Beraz, Zumaiako Joxe Mari Korta Industrialdeko Kontserbazio Juntaren Estatutuen 3. artikulua, era honetan geldituko da:

3. Artikulua. Helburuak.-

Erakundearen helburuak honako hauek izango dira:

- a) *Zumaiako AA.SS.en 18 HAKo (lehen 32 HGA) Barne Erreformako Plan Berezian aurreikusitako hirigintza lanen kontserbazioa eta zerbitzu publikoetako instalazioen eta zuzkiduren mantendu beharra betetzea:*

1.- EURI UREN SAREA

1.1- Mantenu lanak

- *Euri ura sarearen garbiketa: presiodun ura duen mangerarekin linea guztiaren garbiketa.*
 - ❖ *Maiztasuna: urtean behin.*

1.2.- Udalar helarazi beharreko dokumentazioa

- *Garbiketa lanen txostena urtean behin.*

2.- BELARGUNEAK

2.1- Mantenu lanak

- *Belar mozketak: 8 mozketak urtean berdegunetan.*
- *Huntza duen malda gunearen mantenua: urtean behin.*



- Ibaiaren eta espaloiaeren arteko hesi berdearen (seto) mantenua (perfilatzea): urtean behin.

2.2.- Udalari helarazi beharreko dokumentazioa

- Mantenu enpresaren kontratua (puntualki kontratatzen badira lan hauek ez).
- Urtean behin egindako lanen enpresaren ziurtagiria.

3.1.- ARGITERI PUBLIKOA

3.1- Mantenu lanak

- Itzaltzen diren lanparak aldatzea: itzaltzen direnean (hala ere, mantenu prebentibo eta programatu bat egitea gomendatzen da, dauden lanparen bizi iraupena zein den kontuan hartuz eta horren arabera lanparen aldaketak programatuz, denak aldi berean egiteko)
- Lanparen garbiketa: urtean behin.
- Argiteri publiko koadro elektrikoaren mantenua: mekanismo ezberdinen azterketa eta funtzionamendu egokia (diferentzialak, zirkuituak, fluxu murriztaileak...): urtean behin.

3.2.- Udalari helarazi beharreko dokumentazioa

- Mantenu enpresaren kontratua adieraziz eginbehar hauek kontratatzen direla gutxienez.
- Urtean behin egindako lanen eta konponketen txostena.

4.- BIDE GARBIKETA

4.1- Mantenu lanak

- Urbanizazioaren eskuzko garbiketa:
 - ❖ Erreien, espaloien, belar guneen eta zuhaitz txorkoen garbiketa.
 - ❖ Papelerak uztea.
 - ❖ Sumideroen garbiketa: urte guztian zehar, baino batez ere udazkenean, zuhaitz orriek euri uren ibilbidea oztopatu ez dezaten. Azaleko garbiketa, saretoaren garbiketa eta hodiaren sarreraren garbiketa.
 - ❖ Animalien gorotzen garbiketa.
- Maiztasuna: astean bi aldiz.

4.2.- Udalari helarazi beharreko dokumentazioa

- Mantenu enpresaren kontratua adieraziz eginbehar hauek kontratatzen direla gutxienez.
- Urtean behin egindako mantenu lanen txostena.

5.- HIRI ALTZARIAK

5.1- Mantenu lanak

- Pintaketa eta konponketa lanak: eserleku, papelera, hito, trafikoko seinale, bide seinalizazio pintura eta bestelako hiri altzarien mantenua.
- Maiztasuna:
 - ❖ Konponketak: beharrezkoak direnean.
 - ❖ Pintaketa lanak: gutxienez, bi urtean behin.



5.2.- Udalari helarazi beharreko dokumentazioa

- Konponketen albarana.
 - Pintaketa eta mantenu lanen ziurtagiria (bi urtero)"
- b) Beste edozein jarduera, urbanizazioko obren eta zerbitzuen kontserbazioarekin zerikusia eduki eta aparteko izaera duena, hobekuntzak barne, jarduera hori egingarritzat hartzen denean Erakunde honen izaeraren barruan.
- c) Erakundea osatzen duten bazkideen eskubide eta interesak babestu eta zaintzea.

IRIZPENA

Ondorioz, 2020ko uztailaren 6ko Lurralde Antolamenduaren Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Alex Oliden (EH BILDU), Iñaki Ostolaza (EH BILDU), Marina Bidasoro (EH BILDU), Oier Korta (EAJ-PNV), Aitziber Odriozola (EAJ-PNV)

Aurka: - - - - -

Abstentzioa: - - -

irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- Zumaia Joxe Mari Korta industrialdeko Kontserbazio Juntaren Estatutuen 3. artikulua garapenaren aldatetari hasierako onarpena ematea.

2.- Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Aipatutako apean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordia behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikulua arabera.

Zumaia, 2020ko uztailaren 6a.

LURRALE ANTOLAMENDUAREN BATZORDEBURUA
IÑAKI OSTOLAZA ESNAL



Zumaia Udala

)

2020IAKU0008-A20/5190

Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto

ERABAKIA: 1.- Zumaia Joxe Mari Korta industrialdeko Kontserbazio Juntaren Estatutuen 3. artikularen garapenaren aldatetari hasierako onarpena ematea.

2.- Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Aipatutako apean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordia behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikularen arabera.

3.1.2.- ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAREN DOKUMENTUARI "12.2 TORREAGA" ESPARRUARI ETA "PUNTANUETA II" 1.SEKTOREARI DAGOKIONARI ETA PARTE-HARTZE PROGRAMARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-

2020KO UZTAILAREN 20KO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO PLANGINTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAREKIN LOTUTAKOA, "12.2 TORREAGA" ESPARRUARI ETA " PUNTANUETA 2" 1. SEKTOREARI DAGOKIENA.

AURREKARIAK

1.- 2004KO Arau Subsidiarioetan (2006 urtean argitaratuak) 12. HA Estazioa I guneko, 12.2. Torreaga gauzatze unitaterako 34.000 m²(s) Hirigintza eraikigarritasuna ezartzen ziren, modu honetan banatuak:

- 23.595 m²(s) lur gainetik etxebizitza erabileretako.
- 8.405 m²(t) lur azpitik garaje eta trasteleku erabilerentzako.
- 2.000 m²(t) s lur gainetik erabirela komertzialarentzako

2.- 2007ko martxoaren 13ko batzaraldian (GAO 2007ko apirilaren 12ko 71zbk.) , Zumaia Hiri Antolaketako arauen aldateta, Torreaga 12. Hirigintza Areako (U.E. 12.2) babes ofizialeko etxebizitzak 1. alorrera (Puntanueta II) aldatzeari, Torreaga 12.2 jardun unitatea berrantolatzeari eta hirigintza arauen 34.3 artikuluko zehaztapenak osatzeari buruzkoari behin betiko onepena eman zitzaion, baldintza hauekin:

■ Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lizentzia betebeharrak betetzetik salbuetsita dauden etxebizitza libreak eraikitzeko lizentzia baino lehenago emango da edo aldi berean.

■ Torreaga 12.2 Jardun Unitatean %20ko bakantzearen ondoriozko babes ofizialeko 9 etxebizitza berriak eremu horretan bertan eraikiko dira.



3.- Bitartean, 2006ko maiatzarena 9an, Fundiciones Torreaga S.L. eta Zumaia Udalak Hirigintza Hitzarmena sinatu zuten gunea modu egokian garatu ahal izateko.

Data berarekin, 2006ko Maiatzak 9m Promociones Torreaga S.L. eta Zumaia Lantzen S.A.-ren artean beste Hitzarmen bat sinatu zen. Hitzarmen honetan Zumaia Lantzenen bere alorrean Torreagari zegozkion babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeak suposatzen zuen galera ekonomikoa kuantifikatu, ordainsarien epeak, e.a. ezartzen ziren.

2010eko Ekainaren 2an eta 2012ko Abenduaren 28an Hitzarmen honen hainbat eranskin sinatu ziren, une horietan higiezinen merkatuak pasatzen ari zen krisia dela eta Promociones Torreaga S.L.-k zailtasunak baitzituen egin beharreko ordainketei aurre egiteko.

4.- 2017ko urtarrilean "Construcciones Sukia"-K, CAJA LABORAL POPULAR S.COOP.CTO-ren izenean (ISGA INMUEBLES, S.A), "12.2. TORREAGA (ZUMAI A)" hirigintza-gunea garatzeko proposamena aurkeztu zion Zumaia Udalari.

Proposamen horretan, eraikuntzen bolumenen antolakuntza berri bat aurkeztu zen, ingurunearekin egokiago lotzen zena. Aurrez Torreagako Barne erreformako Plan Berezian aurrekusten zuen U formako eraikina ibaiari eta ibai ertzeko pasealekuari begira garatzen den hirigintza antolamendu irekiago batengatik ordezkatuaz .

5.- Hirigintza garapen hau egin ahal izateko harturiko akordioak ISAGA INMUEBLES S.A.-k aurkezturiko Hitzarmenean jaso ziren. Hitzarmenaren ardatza nagusiak hauek:

Antolatu beharreko etxebizitzetarako eraikigarritasuna irizpide hauek jarraituta antolatuko da:

- * %20% etxebizitza sozialen erregimena izango du (lehenengo BOE erregimen orokorra).
- * %20% etxebizitza tasatuen erregimena izango du.(1,55 modulua)
- * Gainontzeko %60 eraikigarritasuna sustapen libreko erregimenera lotuko da.

Aurrez Puntanuetan eraiki beharreko BOE-k Torreagara bueltatzen dira, bi guneen arteko lotura amaitzen da.

123/2012 Dekretatuaren bete beharraren ondorioz Udalak 1.500 m² lokal bat jasoko du.

6.- 2018ko irailaren 27ko ohiko batzaraldian osoko bilkurak legezko gehiengo osoarekin Zumaia 12.2 Torreaga guneari dagokion planeamenduko hirigintza-hitzarmenari hasierako onespina eman zion. 2018ko urriaren 10eko 196. zbk. Gipuzkoako aldikari ofizialean hirigintza-hitzarmenaren hasierako onespina iragarri zen. akordioak hogeit eguneko jendaurreko informazio-denbora tramitea bete zuen eta ez alegaziorik aurkeztu ez zenez. behin-behineko akordioa behin betikotzat jo zen.

7.- 2020ko Maiatzaren 21an Construcciones Sukiak ZUMAI AKO PLANGINTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAREKIN LOTUTAKOA, "12.2 TORREAGA" ESPARRUARI ETA "1. PUNTANUETA 11" SEKTOREARI dagokion dokumentua eta Parte-hartze programa aurkeztu du. Dokumentu honen sustatzaileak Isga Inmuebles S.A. eta Zumaia Udala dira eta dokumentuaren idazleak hauek: Manu Arruabarrena Florez, arkitektoa; Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa; Iren Vallejo Elizondo, arkitektoa eta Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua.



Zumaiaiko Udala

2020IAKU0008-A20/5190

8.- Ikusirik gaia 2020ko Uztailaren 6ko Lurralde Antolamenduko batzordean informatu dela.

9.- Ikusirik Dokumentua 2020ko uztailaren 2an herritarrekin izandako parte-hartze bileratan informatu zela.

10.- Ikusirik Udal teknikariak aldeko txosten teknikoak igorri duela.

IRIZPENA

Ondorioz, 2013ko abenduaren 9ko Hirigintza Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Alex Oliden Antia (Bildu)
Marina Bidasoro (Bildu)
Aitziber Odriozola (EAJ)

Aurka: 0
Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

LEHENA.- Isga Inmuebles S.A. eta Zumaiaiko Udalak sustatu, Manu Arruabarrena Florez, arkitektoak; Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoak; Iren Vallejo Elizondo, arkitektoak eta Mikel Iriondo Iturrioz, abokatuak idatzitako ZUMAIKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAREN DOKUMENTUARI "12.2 TORREAGA" ESPARRUARI eta "PUNTANUETA II" 1.SEKTOREARI dagokionari eta Parte-hartze programari HASIERAKO ONARPENA ematea

BIGARRENA.- Hirigintza aholku batzordeari deialdia egitea informatua egon dadin eta ezinbestekoa den txostena egin dezan.

HIRUGARRENA.- Dokumentua, 45 baliodun egunetan epean jendaurrera azalduta edukiko da.

Hala, iragarki hau azkeneko aldiz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, hilabete bateko epean, ikusgai izango da espedientea Zumaiaiko Udaleko Hirigintza Sailean eta Zumaiaiko Udaleko webgunean.

Zumaia, 2020ko Uztailaren 20a.

Jarduneko LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDEBURUA

Alejandro Oliden Antia

Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto



ERABAKIA: 1.- Isga Inmuebles S.A. eta Zumaia Udalak sustatu, Manu Arruabarrena Florez, arkitektoak; Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoak; Iren Vallejo Elizondo, arkitektoak eta Mikel Iriondo Iturrioz, abokatuak idatzitako ZUMAIKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAREN DOKUMENTUARI "12.2 TORREAGA" ESPARRUARI eta "PUNTANUETA II" 1.SEKTOREARI dagokionari eta Parte-hartze programari HASIERAKO IZAERAZ onartzen da.-

2.- Hirigintza aholku batzordeari deialdia egitea informatua egon dadin eta ezinbestekoa den txostena egin dezan.

3.- Dokumentua, 45 baliiodun egunetan epean jendaurrera azalduta edukiko da.

3.1.3.- ZUMAIKO 02 HA-SAN TELMO ARRABALA, 2.2 EUKO XEHETASUN AZTERKETAREN ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-

2020KO UZTAILAREN 20KO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO 02 HA-SAN TELMO ARRABALA, 2.2 EUKO XEHETASUN AZTERKETAREN ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEKO

AURREKARIAK

1.- 2009ko martxoaren 26an egindako osoko bilkuran, behin betiko onarpena eman zitzaion SAN TELMO AUZOA 02 hako 2.2 euren XEHETASUN-AZTERKETARI.

2.- Ikusirik Lurralde antolamenduko batzordean informatu ondoren Zumaia Arau Subsidiarioetako 02 HA-San Telmo auzoa, 2.2 EUko Xehetasun azterketaren aldaketari, hasierako onarpena eman zitzaion 2020ko ekainaren 8ko 494/2020 zk. duen Alkatetza Dekretuz.

3.- Ikusirik indarrean dagoen legediak xedatutakoaren arabera, horren berri eman zaio ingurukoei eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2020ko ekainaren 15) eta zabalkunde gehien duen lurraldeko egunkari batean iragarkia argitaratuz 20 eguneko epean, azken argitalpenetik zenbatzen hasita.

4.- Jendaurrean izan zen epean ez da alegaziorik aurkeztu.

5.- Irizpena jaso dezan SAN TELMO AUZOA 02 hako 2.2 euren XEHETASUN-AZTERKETAREN aldaketari.

IRIZPENA

Ondorioz, 2020ko Uztailaren 20an, ondorengo botoekin

Alde: Alex Oleden Antia (Bildu)
Marina Baidasoro (Bildu)
Aitziber Odriozola (EAJ)
Kontra: 0
Abstentzioa: 0

Lurralde Antolamenduko Batzorde informatiboak ALDEKO irizpena eman du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan



Zumaia Udala

2020IAKU0008-A20/5190

araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Nerea Azpillaga Echeverria, Mikel Lambarri, Izaguirre, Lucia Manzidor Egiguren eta Aitor Careaga Azcarraga sustatutako ZUMAIKO 02 HA-SAN TELMO ARRABALA, 2.2 EUKO XEHETASUN AZTERKETAREN ALDAKETAREN behin-betiko onarpena ematea.

2.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Zumaia 2020ko Uztailaren 20a

Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto

ERABAKIA: **1.-** Nerea Azpillaga Echeverria, Mikel Lambarri, Izaguirre, Lucia Manzidor Egiguren eta Aitor Careaga Azcarraga sustatutako ZUMAIKO 02 HA-SAN TELMO ARRABALA, 2.2 EUKO XEHETASUN AZTERKETAREN ALDAKETAREN behin-betiko onarpena ematen da.

2.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

4.- PERTSONALA.-

4.1.- IRIZPENA:

4.1.1.- BEHIN-BEHINEKO LANGILEENTZAT GORDETAKO KOMUNIKAZIO ARDURADUN LANPOSTUAREN SORRERARENGATIK 2020KO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETA HASIERAKO IZAERAZ ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

2020KO UZTAILAREN 21EKO PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENA, BEHIN-BEHINEKO LANGILEENTZAT GORDETAKO KOMUNIKAZIO ARDURADUN LANPOSTUAREN SORRERARENGATIK 2020KO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETAREN ONARPENA.

AURREKARIAK

Ohikoa izan da komunikazio zerbitzua enpresa desberdinei esleitzea, modu zuzenean, udal gobernu desberdinen aldetik. Horren aurrean, eta esleipena modu egokian egiteko, behin baino gehiagotan pleguak preparatzen eta aztertzen hasi dira Idazkaritzatik, baina horietako lan batzuk udal gobernuarekin



Zumaia Udala

2020IAKU0008-A20/5190

harreman estu eta konfiantzazkoa izatea eskatzen dutelako, zailtasunak izan ditugu berezitasun horiek plegu batzuetan, jasotzeko, adierazteko eta baloratzeko.

Horregatik, berriz ere zerbitzua modu egokian adjudikatu nahi horretan, ikusi da egokiagoa izango litzakeela, lan horiek dituzten berezitasunengatik eta legeak espresuki ezaugarri horiek jasotzen dituen postuak aurreikusten dituelako, langileen lanpostuen zerrendan behin behineko langileentzat gordetako plaza sortzea lan horiek egiteko; bereziki, plaza horien ezaugarria konfiantzazko eta aholkularitzako lanak egitea delako.

Behin-behineko langileen araubide juridikoa Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 104. eta 104 bis artikuluetan dago araututa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 176. artikuluekin bat etorritik, bai eta Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 12. artikuluan ere. 5/2015 Legegintzako Dekretua, 2015ekoaren 30ekoa.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 12. artikulua ezartzen duenez, behin-behineko langileak dira, izendapenen bidez eta modu ez-iraunkorrean, konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat berariaz kalifikatutako eginkizunak soilik betetzen dituztenak, eta xede horretarako esleitutako aurrekontu-kredituen kargura ordaintzen dira.

Behin-behineko langileei karrerako funtzionarioen araubide orokorra aplikatuko zaie, haien izaeraren arabera egokia den neurrian.

Langile horiek izendatzea eta kargutik kentzea Alkateari dagokio eskusiboki, eta eskumena ezin da eskuordetu.

Kargugabetu edo kendu ahal izango dira askatasunez, egungo korporazioaren agintaldiko edozein unetan. Nolanahi ere, konfiantza- edo aholkularitza-eginkizuna betetzen duen agintariarena gertatzen denean utziko du kargua.

Behin-behineko langile izatea ezin izango da merezimendu izan Funtzio Publikoan sartzeko edo barne-sustapenerako.

Administrazio publikoetako langileen bateraezintasunen araubidea aplikatzen zaio.

Hori guztia kontuan izanda, eta udal gobernu taldearen eskaera ikusita komenigarria da langileen lanpostuen zerrendaren aldaketa egitea, eta, bertan komunikazio arduraduna izeneko behin behineko langileei gordetako plaza sortzea.

Bestetik, komunikazio arduradun lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna zehazteko, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak araututakoa kontuan izanik, Kultura eta Hizkuntza politika saileko aginduzko txostena eskatu da.



2020ko ekainaren 8ko datako txostenean, Zumaia Udaleko euskara sailetik lanpostuari 3. HE zehazteko egindako proposamena egokia dela azaldu da eta horrekin batera, derrigortasun datari dagokionez, Osoko Bilkurak lanpostuaren sorrera onartzen duen data zehaztea jaso da.

IRIZPENA

Ondorioz, 2012ko uztailaren 21eko Pertsonal Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

ALDE:

Asier Arakistain (EH-Bildu)
Arantza Gajate (EH-Bildu)
Marikruz Alvarez (EAJ)
Iker Mardaras (EAJ)

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

1.- Zumaia Udaleko 2020ko lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan behin-behineko langileentzat gordetako Komunikazio arduradun lanpostua eta plaza sortzea.

2.- Lanpostuaren hizkuntza eskakizunari dagokionez, 3. H.E zehaztea, Osoko Bilkurak lanpostuaren sorrera onartzen duen data derrigortasun data izanik.

3.- Lanpostuaren baldintza ekonomikoei dagokienez, urteko ordainsaria 35.123,12€koa izate.

4.- Zumaia Udaleko 2020ko lanpostu zerrendaren aldaketa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik, hamabost lanegunetan, jendaurrean jartzea. Egun hauetan interesatuak zerrenda ikusi eta Udal batzaren aurrean erreklamazioak jartzeko aukera izango dute. Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, Langileen Lanpostu Zerrenda behin betiko onartuko da.

5.- Zumaia Udaleko 2020ko Langileen Lanpostuen Zerrendaren aldaketa behin betiko onartzen denean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Asier Arakistain Alberdi



Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 0 boto

ERABAKIA: 1.- Zumaia Udaleko 2020ko lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan behin-behineko langileentzat gordetako Komunikazio arduradun lanpostua eta plaza sortzea.

2.- Lanpostuaren hizkuntza eskakizunari dagokionez, 3. H.E zehaztea, Osoko Bilkurak lanpostuaren sorrera onartzen duen data derrigortasun data izanik.

3.- Lanpostuaren baldintza ekonomikoei dagokienez, urteko ordainsaria 35.123,12€koa izatea.

4.- Zumaia Udaleko 2020ko lanpostu zerrendaren aldaketa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik, hamabost lanegunetan, jendaurrean jartzea. Egun hauetan interesatuak zerrenda ikusi eta Udal batzaren aurrean erreklamazioak jartzeko aukera izango dute. Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, Langileen Lanpostu Zerrenda behin betiko onartuko da.

Eta honekin Ezohiko denez galdera-erantzunik ez dago 28 minutuan dugu bukatutzat ematen dugu

Eskerrik asko etortzeagatik

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hogeita zortzi minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria